

# Biribilko 2020-2021 ikastaroen ebaluazioa

Biribilko 2020-2021 ikasturteko euskara ikastaroetan parte hartu duten merkatariak egindako balorazioaren emaitza nagusiak eskaintzen ditugu jarraian.

## 1. 2020-2021 Ikastaroen ezaugarriak eta matrikulazioari buruzko datu nagusiak

### 1. Ikastaroen eskaintza

|   | HARTZAILEAK   | HELBURUA   | IRAUPENA    | ORDAINDU BEHARREKO Matrikularen prezioa |
|---|---|--|-------------|---|
| <b>EUSKARA KOMERTZIALEKO OINARRIZKO IKASTAROA</b> | <br>Euskara ez dakiten (edo oso gutxi dakiten) Bilboko establezimenduetako merkatari edota enplegatuak. | <br>Ahozko oinarriko komunikazioa lantzea, merkataritzako egoera arruntetarako hizkuntza-oinarriak ematea. | <br>90 ordu | <br>90 € ikasturte osoarengatik         |
| <b>EUSKARA KOMERTZIALA HOBETZEKO IKASTAROA</b>    | <br>Euskara zerbait hitz egiten dakiten Bilboko establezimenduetako merkatari edota enplegatuak.        | <br>Merkataritza arloko ahozko eta idatzizko euskara maila hobetzea  | <br>90 ordu | <br>90 € ikasturte osoarengatik         |

### 2. Datak, egunak eta ordutegiak

|                 | DATAK<br>(aukeratzeko: 1.aukera ala 2.aukera)                      | ASTEKO KLASE EGUNAK<br>(astean 2 egun) | KLASE ORDUTEGIAK<br>(aukeratzeko: goizez ala eguerdiz)   |
|-----------------|--|--|--|
| <b>1 AUKERA</b> | <br>Hasiera: 2020ko urriaren 14a<br>Amaiera: 2021eko ekainaren 16a | <br>Astelehenak<br>+<br>Asteazkenak    | <br><input type="checkbox"/> 1. Goizez: 8:00 - 9:30<br><input type="checkbox"/> 2. Eguerdiz: 14:15 - 15:45 |
| <b>2 AUKERA</b> | <br>Hasiera: 2020ko urriaren 13a<br>Amaiera: 2021eko ekainaren 15a | <br>Astearteak<br>+<br>Ostegunak       | <br><input type="checkbox"/> 1. Goizez: 8:00 - 9:30<br><input type="checkbox"/> 2. Eguerdiz: 14:15 - 15:45 |

### 3. Biribilko ikastaroetan matrikulatzeko informazioa

**MATRIKULATZEKO EPEA**  
**MATRIKULATZEKO MODUAK**  
**ETA KLASEAK HARTZEKO LEKUAK**

**2020ko irailaren 7tik 2ra arte**

Matrikulazioa bi modutara egin daiteke:

- Biribilko web orriaren Heziketa atalean aurkitzen den [izen-emate formularioa](#) online betez
- Ondoren aipatzen den euskaltegiren batera joanda. Klaseak ere horietan emango dira:

**BILBO ZAHARRA**, Posta kalea, 8 (Tel: 94 4158292)

**GABRIEL ARESTI**, Done Bikendi kalea, 2 – 4. solairua (Tel: 94 4237591)

**INDAUTXUKO AEK**, Urkixo Zumarkalea, 88 – 1. A (Tel: 94 4413474)

**JUAN MATEO ZABALA**, Gordoniz kalea, 22 (Tel: 94 4221388)

**LIZARDI AEK**, Txakur kalea, 1 – 1. (Tel: 94 4168200)

**MATXINTXU AEK**, Ramón y Cajal Etorbidea, 8 (Tel: 94 4752233)

**SANTUTXUKO AEK**, Arbidea kalea, 21 (Tel: 94 4117656)

**ULIBARRI EUSKALTEGIA**, Gardoki kalea, 3 – 1. (Tel: 94 4162472)

## 4. Ikastaroetan matrikulatutakoei eskainiko zaizkien zerbitzuak

Biribilko ikastaroetan matrikulatzen diren pertsonak, ondorengo **zerbitzuak eskuratzeko aukera** izango dute.

- Klaseetara gutxienez %75eko asistentzia ziurtatzen dutenek, ikastaroa egin izanaren egiaztagiri bana jasoko dute.
- Jarduera adar desberdinetako euskara-gaztelania hiztegi komertzial espezifikoak doan jasotzeko aukera izango dute.
- Lan egiten duten establezimenduetan, jendaurrean ipintzen diren mezu idatziak gaztelaniatik euskarara itzultzeko doako zerbitzua eskainiko zaie.

**1. Taula:** Biribilko 2020-2021 ikastaroen matrikulazioari buruzko datu nagusiak

|                          |   | Kop.       | %            |
|--------------------------|---|------------|--------------|
| <b>Ikastaro mota</b>     | Euskara komertzialeko oinarrizko ikastaroa (90 ordukoa) ..... | 67         | 67,0         |
|                          | Euskara komertziala hobetzeko ikastaroa (90 ordukoa) .....    | 33         | 33,0         |
| <b>Klase egunak</b>      | Astelehen eta asteazkenak .....                               | 18         | 18,0         |
|                          | Astearte eta ostegunak.....                                   | 82         | 82,0         |
| <b>Klaseen ordutegia</b> | Goizez: 8:00-9:30 .....                                       | 34         | 34,0         |
|                          | Eguerdiz: 14:15-15:45 .....                                   | 66         | 66,0         |
| <b>GUZTIRA</b>           |   | <b>100</b> | <b>100,0</b> |

*Iturria: Bilboko euskaltegiak. Siadecok landua, 2021*

2020-2021 ikasturtean, 100 merkatari matrikulatu dira Biribilko ikastaroetan, aurreko ikasturtean baino gutxiago (2019-2020an 165 izan ziren). Beherakada hau, COVID-19 pandemiak eragindako testuinguruan ulertu behar da. Izan ere, pandemia honek, osasunean ez ezik, eragin zuzena eta nabarmena izan du, jarduera ekonomikoan, enpleguan, harremantzeko eta bitzita antolatzeke moduetan.

Bestalde, aurreko ikasturteetako joerari eutsiz, ikasleen gehiengoa (3tik 2) euskara komertzialeko oinarrizko ikastaroan matrikulatu da.


Guztira, 12 talde osatu dira: 8 oinarrizko-mailan, eta 4 hobekuntzakoan.

Klaseetara joateko egunei dagokionez, ikasleen gehiengo nabarmenak (%82k) astearte eta ostegunetako txanda aukeratu du.

Ordutegiari dagokionez, 3 ikasletik 2, eguerdiko ordutegian joan dira klaseetara (14:15etik 15:45era).

## 2. Ikasleen ezaugarri soziodemografikoak


### 1. Grafikoa: Biribilko euskara ikasleak sexuaren arabera-bilakaera (%)



Iturria: Siadeco, 2021.

Aurreko ikasturteetan bezala, 2020-2021ean ere, emakumezkoak gehiago nabarmena izan dira ikasleen artean: %77,6 hain zuzen ere. Datu hau, bat dator, merkataritza sektoreko langileen artean dagoen feminizazioarekin.

### 2. Grafikoa: Biribilko euskara ikasleak adinaren arabera-bilakaera (%)



Iturria: Siadeco, 2021.


Adinari begiratuta, ikasleen batez besteko adina zertxobait jaitsi da iazkoarekin alderatuta: aurtan 44,3 urtekoa da eta iaz 45,9.

Ikasleen ia %32k 51 urte ala gehiago ditu eta ia %27k 41-50 urte artean.

40 urtetik beherakoak, orotara, %38 dira

### 3. Ikasleek lan egiten duten merkataritza establezimenduaren jarduera-adarra eta kokatuta dagoen azuznea

3. Grafikoa: Biribilko euskara ikasleek lan egiten duten establezimenduaren jarduera adarra (%)




Iturria: Siadeco, 2021.

Biribilko ikastaroetako 10 ikasletik 3, zerbitzu sektoreko establezimenduetan ari dira lanean (ostalaritza, ileapaindegiak...) Ondoren, jarduera aipagarrienak bestelako produktuak eta drogeria-lurrin-denda-farmazia produktuak saltzen dituztenak dira: horietan ikasleen %16,5% eta %15 inguru ari direlako lanean, hurrenez hurren. Gero, jantziak eta oinetakoak saltzen dituzten establezimenduetan lan egiten duten ikasleak nabarmentzen dira: ia %13.

Datuok, aurreko ikasturtekoak bezala, Biribilko ikasleen artean, zerbitzu sektoreko ikasleek hartu duten pisu adierazgarria erakusten dute, aurtengoa iazkoa baino apalagoa bada ere (iaz, %46 izan ziren).

**4. Grafikoa:** Biribilko euskara ikasleek lan egiten duten establezimendua kokatuta dagoen auzoa (%)




Iturria: Siadeco, 2021.

Biribilko ikastaroetako ikasleen ia herenak, Abandon kokatutako establezimenduetan egiten du lan. Ondoren ikasleen ia %18, Indautxuko establezimenduetan ari da lanean, %14 Zazpi Kaleetakoetan eta %10 Santutxukoetan.

Aurreko ikasturteko datuekin alderatuz gero, areagotu egin da zentroko establezimenduetan (Abandon eta Indautxun) lan egiten duten ikasleen pisu erlatiboa (aurten %50 eta iaz %34). Aldiz, Zazpi Kaleetako establezimenduetan lan egiten dutenen pisu erlatiboa jaitsi egin da (iaz ia %24) eta Santutxukoetan lanean ari direnena igo (iaz %8).

## 4. Euskararen balioa bezeroak asebate eta fidelizatzeko

### 5. Grafikoa: Euskarak zenbateraino lagun dezake bezeroak asebate eta fidelizatzen? (%)




Iturria: Siadeco, 2021.

Ikasleen gehiengo nabarmenak, euskara bezeroarekiko komunikazio komertziala hobetzeko baliabide garrantzitsua dela kontsideratzen du: 10etik 7k, euskarak bezeroak asebate eta fidelizatzen asko ala nahikoa lagun dezakeela irizten diote. Beraz, establezimenduen komunikazio eta marketin estrategia hobetzeko euskara tresna eraginkorra dela uste dute.

## 5. Euskara ikastaroen egindako balorazioa

### 6. Grafikoa: Ikastaroen hainbat alderdiren inguruan ikasleek egindako batez besteko balorazioa, ikastaro motaren arabera (0tik 10erako eskalan)



Iturria: Siadeco, 2021.

Biribilko ikastaroen inguruan ikasleek egindako balorazioa, oro har, oso positiboa izan da: 0tik 10erako eskala batean, 8,80ko batez besteko puntuazio orokorra eman diete. Ikastaroen alderdi desberdinen balorazioak, 7,69 eta 9,39aren artean daude.

- Puntuaziorik altuena, ondorengo hiru alderdiek lortzen dute: irakasleak (9,39); euskaltegien kokapena (9,38); eta ikasleen taldea (la relación y el ambiente de trabajo...) (9,36)
- Bestalde, puntuaziorik baxuena jasotzen duten alderdiak ondoko hauek dira: ikastaroen iraupena (ordu gehiago ematea eskatzen da) (8,65); erabilitako materialak (8,47); eta batez ere, klaseko euskara mailaren homogeneotasuna (7,69) (klase berean elkartzen diren ikasleen maila berdintsuago izatea). Nolanahi ere, batez besteko puntuazio guztiak 7,5aren gainetik daude.

## 6. Ezagutzen pertzibitutako aurrerapenak, ahoz eta idatziz

**2. Taula:** Otik 10erako eskala batean, baloratu zein neurritan hobetu den zure euskara maila ahoz eta idatziz, ikastaroa hasi baino lehen zenuenarekin alderatuta, ikastaro motaren arabera (0=ez da batere hobetu eta 10=asko hobetu da)

| Baloratutako alderdia  | Ikastaro motaren arabera |                     |             |
|--|--------------------------|---------------------|-------------|
|  | Oinarrizko ikastaroa     | Hobetzeko ikastaroa | Guztira     |
| Baloratu zein neurritan hobetu den zure euskara maila ahoz, ikastaroa hasi baino lehen zenuenarekin alderatuta | 6,63                     | 6,86                | 6,71        |
| Eta zein neurritan hobetu da zure euskara maila idatziz, ikastaroa hasi baino lehen zenuenarekin alderatuta    | 6,75                     | 6,86                | 6,79        |
| <b>Batez besteko orokorra</b>  | <b>6,69</b>              | <b>6,86</b>         | <b>6,75</b> |

*Iturria: Siadeco, 2021*


Biribilko ikastaroei esker, ahozko nahiz idatzizko ezagutzen pertzibitu duten aurrerakuntza baloratzeko eskatu zaie ikasleei, Otik 10erako eskala bat erabiliz (0= ez da batere hobetu eta 10=asko hobetu da). Oro har, balorazioa positiboa da, ahoz nahiz idatziz, euren euskara maila nahikoa hobetu dela irizten diotelako

- Ahozko ezagutzen izan duten hobekuntza orokorra, 6,71 punturekin baloratzen dute.
- Idatzizko euskara mailan izandako hobekuntza 6,79 punturekin baloratzen dute.



## 7. Establezimenduko euskararen erabileran izandako eragina

**7. Grafikoa:** Biribilko ikastaroetara joaten hasi zarenetik, zein neurritan erabiltzen duzu euskara establezimenduan? (%)




*Iturria: Siadeco, 2021.*

Ikasleek egindako balorazioan oinarrituta, esan daiteke Biribilko ikastaroek eragin adierazgarria izan dutela ikasleen euskararen erabilera komertzialean.

Izan ere, ikasleen %72k adierazi dute, ikastaroetara joaten hasi zirenetik gehiago erabiltzen dutela euskara establezimenduan: %25ek lehen baino askoz gehiago erabiltzen dutela esan dute eta ia %47k lehen baino zerbait gehiago.

## 8. Biribilko ikastaroekiko asetze-maila eta aholkatze-maila beste merkatari batzuk ikastaroetan parte har dezaten

8. **Grafikoa:** Ikastaroak zein mailatan erantzun dien ikasleen espektatibei eta zenbateraino aholkatuko lioketen beste merkatari bati (batez besteko balioak Otik 10erako eskalan) (ikasleen erantzunak)



Iturria: Siadeco, 2021.

Biribilko ikastaroek, ikasleek hasi aurretik zituzten espektatibei maila adierazgarrian erantzun dietela esan daiteke: Otik 10erako eskala batean (0=ez ditu batere bete eta 10=gutziz bete ditu), 7,94ko puntuazioa eman diete. Asetze-maila hau, oinarrizko ikastaroan ibili diren ikasleen artean, hobetzekoan ibili direnen artean baino handixeagoa izan da (8,08 eta 7,68, hurrenez hurren).

Beste merkatari batzuei ikastaroetan matrikulatzea zenbateraino aholkatu edo gomendatuko lieketen adierazteko eskatu zaie ikasleei, Otik 10erako eskala bat erabiliz (0=ez liekete batere gomendatuko eta 10=asko gomendatuko liekete). Ikasleek adierazitako gomendatze-maila altua da: 8,90ekoa. Gomendatze-maila bera ateratzen da oinarrizko eta hobekuntza ikastaroak egin dituzten ikasleen artean.